

Ikasbidaian 1

–Olatz, ez dakizu zer aurkitu dudan! Mugikorreko memoria bete egin zait eta argazkiak ezabatzen hasi naizenean... Hara! Begira zer aurkitu dudan!

–Ai ama, zer oroitzapen onak! Ikasbidaian geunden, ezta? Baina non geunden? Goñin?

–Ez, Goñin ez: Zuhatzan, Arabako uhartean!

–A, bai, egia, Zuhatzan geunden! Ai ama, ikasbidaia horretan ez al zen Xuban...?

–Bai, bai, bai! Hori da! Kar-kar-kar! Xuban gaixoa! Baina momentu horretan ez zuen inork espero hori gertatzerik! Begira, nahiko eguraldi ona zegoen: hodei batzuk zeuden zeruan, baina ez zegoen erabat estalita, ezta?

–Ez, ez, nahiko eguraldi ona zegoen! Windsurf egiten ari ginen denok, lasai-lasai.

–Bueno, den-denok ez... Zuek denok zeundeten windsurf-oholaren gainean, baina ni uretan nengoen, ikusi! Egia esan, ni ez nintzen ari windsurf egiten; ni erridikulua egiten ari nintzen! Kar-kar-kar!

–Kar-kar. Bueno, baina kontua da denok lasai geundela, eguraldi ona zegoela... Eta, bat-batean, hurakana, aizu! Zer izan zen hori?

–Bai, bai! Ba, horren argazkiak ere baditut! Gero gertatu zen guztia argazkitan daukagu! Sekuentzia osoa, Olatz!

–Benetan? Atera argazki horiek derrepente!